



Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailearen 12ko 6/2005 Foru Arauak:

**2/2021 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 23koa, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituen**

De conformidad con lo previsto en el artículo 6. 4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

**Decreto Foral-Norma 2/2021, de 23 de marzo, de medidas tributarias extraordinarias adicionales relacionadas con la COVID-19 y de apoyo a la reanudación y digitalización de la actividad económica**

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA  
EL DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**



## **Araugintzako ebaluazio txostena**

**2/2021 Foru Dekretu-Araua,  
martxoaren 23koa, COVID-19arekin  
zerikusia duten aparteko zerga neurri  
gehigarriak ezarri eta jarduera  
ekonomikoa berrabiarazten eta  
digitalizatzen laguntzeko beste neurri  
batzuk onesten dituen**

Txosten honen bitartez bete nahi da uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 6.4 artikuluan ezarritakoa, bertan xedatzen baita zenbait foru arairen kasuan Batzar Nagusiek araugintzako ebaluazioa egin behar dutela, indarrean jarri eta urtebetera.

### **Sarrera**

Osasun krisialdiak 2021eko lehen hilabeteetan jarduera ekonomikoan izaten ari zen eragin negatiboari aurre egite aldera, beharrezkotzat

## **Informe de evaluación normativa**

**Decreto Foral-Norma 2/2021, de 23  
de marzo, de medidas tributarias  
extraordinarias adicionales  
relacionadas con la COVID-19 y de  
apoyo a la reanudación y  
digitalización de la actividad  
económica**

A través de este informe se trata de dar cumplimiento al mandato legal recogido en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, según el cual, ciertas normas forales serán sometidas al procedimiento de evaluación normativa por las Juntas Generales, una vez transcurrido un año desde su entrada en vigor.

### **Introducción**

Para hacer frente a la incidencia negativa en la actividad económica de la crisis sanitaria durante los primeros meses de 2021, se



ikusi zen zerga arloko neurri batzuk hartzea. Neurri horiek, gainera, planteatu ziren jarduera ekonomikoa suspertzeko beharraren ikuspegitik.

Bestalde, eta TicketBAIren borondatezko aldia bultzatzeko asmoz, komenigarritzat jo zen pizgarri bat ezartzea proiektu horrekin lotutako gastuak finantzatzeko.

#### **Ordainketa zatikatuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, baldin eta jarduera ekonomikoak egiten bazituzten, ez zeuden behartuta Gipuzkoako Foru Ogasunean 2021eko lehen eta bigarren hiruhilekoei dagozkien ordainketa zatikatuak autolikidatzera eta ordaintzera.

#### **COVID-19aren ondorioz bereziki kaltetutako jarduera ekonomikoak garatzen dituzten lokalen errentamenduei laguntzeko neurriak**

2021eko zergaldian soilik, pertsona fisikoen

consideró necesario adoptar ciertas medidas de carácter tributario. Además, dichas medidas se plantearon desde la perspectiva de impulsar la necesaria reactivación económica.

Por otra parte, y con el objetivo de impulsar el periodo voluntario de TicketBAI se consideró conveniente establecer un incentivo para financiar los gastos relacionados con ese proyecto.

#### **Pagos fraccionados en el impuesto sobre la renta de las personas físicas**

Las personas contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas que ejercían actividades económicas, no estaban obligados a autoliquidar e ingresar en la Hacienda Foral de Gipuzkoa los pagos fraccionados correspondientes al primer y segundo trimestre de 2021.

#### **Medidas de apoyo a arrendamientos de locales dedicados al desarrollo de actividades económicas especialmente afectadas como consecuencia de la COVID-19**

Con efectos exclusivos para el período



errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan (establezimendu iraunkorrarekin), zerga oinarria zehazteko gastu kengarritzat hartu zen jarduera ekonomikoak garatzen zituzten zergapekoei murriztutako alokairu errentaren zenbateko garbia. Era berean, negozio errentamenduen etekin garbia zehazteko ere aplikatu zen.

Gainera, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kasuan, etekinen muga aplikatzeagatik kengarria ez zen gastu zatiak, kuota osoari %15eko kenkaria egiteko eskubidea ematen zuen.

Neurri horiek aplikatzeko, beharrezkoa zen ondorengo baldintzak betetzea:

a) Alokairuaren zenbatekoaren beherapenak gutxienez hiru hilabete iraun behar zuen 2021ean.

b) Gerora ezin zen alokairu errenta konpentsatu edo berreskuratu, ondorengo aldietako alokairu

impositivo 2021, en el impuesto sobre la renta de las personas físicas, en el impuesto sobre sociedades y en el impuesto sobre la renta de no residentes (con establecimiento permanente) se consideró gasto deducible para la determinación de la base imponible, la cuantía neta de la renta de alquiler rebajada a obligados tributarios que desarrollasen actividades económicas. Asimismo, era de aplicación en la determinación del rendimiento neto de los arrendamientos de negocios.

Además, en el caso del impuesto sobre la renta de las personas físicas, la parte de gasto que no resultaba deducible por aplicación del límite de rendimientos daba derecho a una deducción de la cuota íntegra del 15%.

Para la aplicación de esas medidas era necesario que se cumplan las siguientes condiciones:

a) La duración de la rebaja de la cuantía del alquiler debía extenderse durante al menos tres meses a lo largo de 2021.

b) No podía existir ningún tipo de compensación o recuperación de la renta de



errentak handituz, beste prestazio batzuk emanaz edo errentariak edo hirugarren batek beste kontraprestazioren bat emanaz.

c) Ez dira neurri horiek aplikatuko errentamendu kontratuarekin lotutako alderdien artean lotura dagoen kasuetan, ez eta ahaidetasun lotura bidez lotuta dauden kasuetan ere, ezkontidea edo izatezko bikotekidea barne, zuzeneko edo zeharkako lerroan, odol-ahaidetasunean, ezkontza-ahaidetasunean edo izatezko bikoteetatik eratorritako lerroan, hirugarren gradura arte, hori barne.

**Ezohiko kenkaria COVID-19ren ondorioz bereziki kaltetutako jarduera ekonomikoak garatzen berriz laguntzeko**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek inbertsioak egiten badituzte 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldian beren jarduera ekonomikoa berriro hasi edo berreskuratzeko edo hura osasun agintariak

alquiler en un momento posterior, bien fuese mediante incrementos de rentas de alquiler de períodos de tiempo posteriores, otras prestaciones o cualquier otro tipo de contraprestación por parte de la persona arrendataria o de terceras personas.

c) No resultaban de aplicación esas medidas en los casos en que existiese vinculación entre las partes relacionadas por el contrato de arrendamiento, así como en los casos en que estuviesen unidas por vínculos de parentesco, incluido el cónyuge o pareja de hecho, en línea directa o colateral, consanguínea, por afinidad, o por la que se derive de las parejas de hecho, hasta el tercer grado inclusive.

**Deducción extraordinaria para el apoyo a la reanudación del desarrollo de actividades económicas especialmente afectadas como consecuencia de la COVID-19**

Las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas, del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, pueden aplicar una deducción de la cuota equivalente al 10% de las inversiones efectuadas en el período impositivo iniciado



COVID-19ak eragindako pandemiaren aurka hartutako neurrietara egokitzeko, inbertsio horien %10eko kenkaria aplikatu ahal izango dute kuotan.

Kenkariaren oinarria honako hauetan egin beharreko inbertsioek osatzen dute: edukierak kontrolatzeko instalazioak egokitzeko, erreserbak kudeatzeko, prebentzio neurriak bermatzeko, zerbitzuak emateko instalazioak/bitartekoak berritzeko edo eguneratzeko, dauzkan baliabideen erabilera optimizatzeko ...

Kenkariaren oinarria ezingo da izan 5.000 eurotik gorakoa.

Kenkaria COVID-19ren ondorioz bereziki kaltetutako jarduera ekonomikoari bakarrik aplikatuko zaie. Hau da, 2020. urteari dagokion eragiketa bolumena, gutxienez, 2019. urteko eragiketa-bolumena baino %25 txikiagoa izatea; eta 2020. urteari dagokion jarduera ekonomikoaren emaitza edo etekin garbia, gutxienez, 2019koa baino %50 txikiagoa izatea.

a partir del 01/01/2021 con el objeto de permitir la reanudación o recuperación de su actividad económica o su adaptación a las condiciones derivadas de las medidas adoptadas por las autoridades sanitarias para combatir la propagación de la pandemia de la COVID-19.

La base de la deducción está constituida por las inversiones que resulten necesarias en la adecuación de las instalaciones para el control de aforos, para la gestión de reservas, para garantizar la medidas de prevención; en la renovación o actualización de las instalaciones/medios de prestación de los servicios; en optimizar la utilización de los medios de que dispone...

La base máxima de la deducción no podrá ser superior a 5.000 euros.

La deducción será aplicable únicamente en las actividades económicas que se hayan visto afectadas de forma sustancial con motivo de la COVID-19. Es decir, que su volumen de operaciones correspondiente al año 2020 sea, como mínimo, un 25% inferior al volumen de operaciones del año 2019; y que el resultado contable o el rendimiento neto de la actividad económica



**TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen borondatez betetzea sustatzeko kenkaria.**

Azaroaren 6ko 3/2020 Foru Arauak, iruzur fiskala saihesteko helburuarekin, 2020/01/01etik aurrera tresna teknologikoak erabili beharra ezarri zuen. Geroago, abenduaren 22ko 32/2020 foru dekretuak borondatez betetzeko aukera ezarri zuen 2021/01/01etik aurrera.

Araudi horrek zerga onurak jasotzen ditu 2020. urtetik TicketBAI betebeharra ezartzeko beharrezkoak diren gastuak eta inbertsioak egiten dituzten zergapekoentzat. Zehazki, %30eko kenkaria kuotan, 5.000 euro edo eragiketa bolumenaren %1eko gehieneko oinarri kengarriarekin, eta 500 euroko gutxieneko oinarri kengarriarekin.

Orain aztertutako proiektuak, zerga onura horiek handitu zituen, TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen betetzea borondatez aurreratzen zenean. Kenkariaren

correspondiente al año 2020 sea, como mínimo, un 50% inferior al del año 2019.

**Deducción para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI con anterioridad al 1 de noviembre de 2021**

La Norma Foral 3/2020, de 6 de noviembre, con el objetivo de para evitar el fraude fiscal estableció la obligatoriedad de utilizar herramientas tecnológicas a partir del 01/01/2020. Más tarde el decreto foral 32/2020, de 22 de diciembre, estableció la opción de su cumplimiento voluntario a partir del 01/01/2021.

Esa normativa recoge unos beneficios fiscales para aquellos obligados tributarios que realicen los gastos e inversiones necesarios para la implantación de la obligación TicketBAI, desde 2020. Concretamente, una deducción en cuota del 30%, con un límite máximo de base deducible de 5.000 euros o el 1% del volumen de operaciones, y con un mínimo de base deducible de 500 euros.

El proyecto ahora analizado incrementó dichos beneficios fiscales cuando se anticipase de forma voluntaria el cumplimiento de la obligación TicketBAI con



portzentajea %60 izango da, %30 izan beharreen, eta gutxieneko oinarria 1.500 euro izango da, 500 euro izan beharreen.

Gainera, kontuan hartuta 3/2020 Foru Arauan aurreikusitako jatorrizko kenkaria 2020an ere aplikagarria zela, aukera eman zen muga berriak aplikatzeko 2020an egindako gastu eta inbertsioengatik, betiere TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen borondatez betetzen bazen.

**Txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari gehitua, TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen borondatez betetzea sustatzeko**

Aurreko atalean aipatutako muga eta baldintza berberak aplikatzea onartu zen, txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkarian (maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu- Araua eta abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Araua). Horretarako, egindako inbertsioen eta gastuen emaitzak berekin ekarri behar zuen TicketBAI betebeharra borondatez betetzea 2021eko azaroaren 1a baino lehen.

anterioridad a 1 de noviembre de 2021. El porcentaje de deducción pasó a ser del 60% en vez del 30%, y la base mínima a 1.500 euros en vez de 500 euros.

Además, teniendo en cuenta que la deducción original prevista en la Norma Foral 3/2020 ya era aplicable en 2020, se posibilitó la aplicación de los nuevos límites por los gastos e inversiones realizadas en 2020, siempre que se anticipase de forma voluntaria cumplimiento de la obligación TicketBAI con anterioridad a 1 de noviembre de 2021.

**Deducción incrementada para la transformación digital del comercio minorista para fomentar el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI con anterioridad a 1 de noviembre de 2021.**

Se aprobó la aplicación de los mismos límites y condiciones comentados en el apartado anterior, en la deducción para la transformación digital del comercio minorista (Decreto Foral-Norma 5/2020, de 26 de mayo y en el Decreto Foral-Norma 11/2020, de 1 de diciembre). Para ello, el resultado de las inversiones y gastos efectuados debía traer consigo el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI con anterioridad al 1 de





### **Salbuespena ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan**

Berme erreal inskribagarria zegoenean, COVID-19aren pandemiaren aurrean enpresen kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitako abal publikoa jaso zuten finantza eragiketen epemuga epeen luzapena formalizatzeko eskriturak salbuetsita geratu ziren, ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan notariotzako dokumentuei egintza juridiko dokumentatuen modalitatean aplikatzen zaien kuota mailakatutik.

### **Sortutako ondorioak**

Foru dekretu-arau honen bidez onartutako neurri batzuek 2021eko zerga ekitaldian izango dute eragina lehen aldiz, eta 2022an aurkeztuko diren aitortenetan islatuko dira.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kasuan, aitorten horiek aurkezteko epea

noviembre de 2021.

### **Exención en el impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados**

En los casos en que existía garantía real inscribible, se declararon exentas de la cuota gradual de documentos notariales de la modalidad de actos jurídicos documentados, las escrituras de formalización de la extensión de los plazos de vencimiento de las operaciones de financiación que hubieran recibido aval público, previstos en el artículo 7 del Real Decreto-ley 5/2021, de 12 de marzo, de medidas extraordinarias de apoyo a la solvencia empresarial en respuesta a la pandemia de la COVID-19.

### **Efectos producidos**

Algunas de las medidas aprobadas mediante este decreto foral-norma tienen efecto por primera vez en el ejercicio fiscal 2021, y tendrán reflejo en las declaraciones que se presenten a lo largo de 2022.

En el caso del impuesto sobre la renta de las personas físicas, el plazo de presentación de



oraindik ez da amaitu txosten hau egin den unean; beraz, ez dago horren eragina ebaluatzeko daturik. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren kasuan, aitorten horien aurkezpena 2022/07/01ean hasten da; beraz, ez dago horiek ebaluatzeko daturik.

Arrazoi hori dela-eta, txosten hau egin den datan ebaluazioa egiteko daturik ez dago, honako neurri hauetan:

- COVID-19aren ondorioz bereziki kaltetutako jarduera ekonomikoak garatzen dituzten lokalen errentamenduei laguntzeko neurriak
- Ezohiko kenkaria COVID-19ren ondorioz bereziki kaltetutako jarduera ekonomikoak garatzen berriz laguntzeko.
- TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen borondatez betetzea sustatzeko kenkaria.

dichas declaraciones aún no ha terminado en el momento de elaboración de este informe, por lo que no se dispone de datos para poder evaluar su efecto. En el caso del impuesto sobre la renta de los no residentes y el impuesto sobre sociedades, la presentación de dichas declaraciones comienza el 01/07/2022, por lo que tampoco se dispone de datos para su evaluación.

Las medidas de las que por esa razón no se dispone de datos para su evaluación, a la fecha de elaboración de este informe, son:

- Medidas de apoyo a arrendamientos de locales dedicados al desarrollo de actividades económicas especialmente afectadas como consecuencia de la COVID-19.
- Deducción extraordinaria para el apoyo a la reanudación del desarrollo de actividades económicas especialmente afectadas como consecuencia de la COVID-19.
- Deducción para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI con anterioridad al 1 de noviembre de 2021.



- Txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari gehitua, TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen borondatez betetzea sustatzeko.

### **Ordainketa zatikatuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan**

Aztertutako arauak 2021eko lehen eta bigarren hiruhilekoei dagozkien ordainketa zatikatuak egiteko obligatorik eza ezarri zuen. Hala ere, pertsona askok borondatez egin zituzten ordainketa horiek. Lehenengo hiruhilekoan 17.779 pertsona izan ziren, 12.707.519 euroko balioarekin; eta bigarren hiruhilekoan 19.193 pertsona, 14.143.829 euroko balioarekin.

### **Salbuespena ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan**

Printzipioz, eta izatez, edozein epe luzapen ere ez dago egintza juridiko dokumentatuen modalitateari lotuta. Beraz, salbuespenaren aplikazioa bermatzen duen neurri bata da, praktikan inolako arazorik sortzen ez duena.

- Deducción incrementada para la transformación digital del comercio minorista para fomentar el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI con anterioridad a 1 de noviembre de 2021.

### **Pagos fraccionados en el impuesto sobre la renta de las personas físicas**

La norma analizada estableció la no obligatoriedad de realizar los pagos fraccionados correspondientes al primer y segundo trimestre de 2021. A pesar de ello, muchas personas realizaron voluntariamente dichos pagos. En el caso del primer trimestre fueron 17.779 personas, por un valor de 12.707.519 euros; y en el segundo trimestre 19.193 personas, por un valor de 14.143.829 euros.

### **Exención en el impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados**

En principio, y de facto, cualquier ampliación de plazos no está sujeta a la modalidad de actos jurídicos documentados. Se trata, por tanto, de una medida que garantiza la aplicación de la exención, y que en la práctica no genera problema alguno.



## **Proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura**

Aztertutako arauaren helburua izan zen zerga arloan premiazko neurriak hartzea, pertsona jakin batzuentzat egoera ekonomiko larria gaitztea errazteko eta jardura ekonomikoen jarraitutasuna bermatzeko.

Neurri batzuk indarrean sartu zireneko datak eta neurri horiek jasotzen dituzten zerga aitortpenak aurkezteko epeak direla-eta, ez dago neurri horiek behar bezala ebaluatzeko daturik.

2021eko lehen eta bigarren hiruhilekoei dagozkien ordainketa zatikatuak autolikidatzea eta ordaintzea nahitaezkoa ez izatearen kasuan, proiektuarekin batera aurkeztu zen zerga-bilketa eraginaren memoria ekonomikoan aurreikusi zen eragin hori -25.342.726 eurokoa izango zela. Aurreikuspen hori, maximoen hipotesi batzuekin eginda zegoen, non epealdi normal bati zegokion zenbatekoaren %75a ordaintzeari utziko zitzaion. Epealdi normaltzat jotzen da, aldi bat non ez dagoen covid-19ak eragindako ondorioz. Hala, 2019ko lehen eta

## **Correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados**

El objetivo de la norma analizada era adoptar medidas de carácter urgente en el ámbito tributario que facilitasen la superación de una grave situación económica para determinadas personas, y garantizaran la continuidad de las actividades económicas.

Debido a las fechas de entrada en vigor de algunas de las medidas, y los plazos de presentación de las declaraciones tributarias en las que se recogen, no se dispone de datos para la correcta evaluación de dichas medidas.

En el caso de la no obligatoriedad de autoliquidar e ingresar los pagos fraccionados correspondientes al primer y segundo trimestre de 2021, en la memoria económica de impacto recaudatorio que acompaña al proyecto se estimaba que dicho efecto sería de -25.342.726 euros. Esa estimación estaba realizada con unas hipótesis de máximos, en la que se dejaría de ingresar el 75% del importe correspondiente a un periodo normal. Entendiendo como periodo normal a uno sin los efectos



bigarren hiruhilekoetako datuak hartu ziren erreferentziatzat. Eta bi epealdi horietan 33.892.601 euro ordaindu ziren kontzeptu horrengatik.

Datu errealek erakusten dutenez, azkenean 26.851.348 euro ordaindu dira, epealdi normal batean ordainduko litzatekeenaren ia % 80. Hau da, aurreikusitako 25,3 milioi euroen ordean 7.041.253 euro ordaintzeari utzi zitzaioala aurreikusi da. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar, zerga-bilketaren galera hori finantzarioa besterik ez dela. Izan ere, ordainketa zatikatuak, zergaren konturako ordainketa bat dira, kasu honetan PFEZarena, eta ekitaldi horri dagokion aitortpena aurkezten den unean likidatuko dena.

Azkenean, ikusi da jarduera ekonomikoak likideziaz eta finantzaketaz hornitzeko neurri horren erabilpenak ez duela espero zen erabilera maila izan. Hala ere, neurriak bere helburua bete du; izan ere, mekanismo hori beharrezko zuten jardueren eskura ipini baitzen.

provocados por la covid-19. Así, se tomaron como referencia los datos del primer y segundo trimestre de 2019. En esos dos periodos se pagaron por ese concepto un total de 33.892.601 euros.

Los datos reales muestran que al final se han ingresado 26.851.348 euros, prácticamente el 80% de lo que se ingresaría en un periodo normal. Es decir, se estima que se dejaron de ingresar 7.041.253 euros, en vez de los 25,3 millones de euros previstos. De todas formas, no debemos olvidar que esa pérdida recaudatoria es únicamente de carácter financiero. Ya que los pagos fraccionados son un pago a cuenta del impuesto, en este caso del IRPF, y que se liquidará en el momento de la presentación de la declaración correspondiente a ese ejercicio.

Al final, se ha observado que la utilización de esa medida, destinada a dotar de liquidez y financiación a las actividades económicas, no ha tenido el grado de utilización esperado. Si bien, la medida ha cumplido con su objetivo de poner dicho mecanismo a disposición de las actividades para las que resultase necesario.



## **Araugintza garatzeko beharrak**

Aztertutako Foru Dekretu-Arauk ez du inolako araugintza garapenik behar izan.

## **Laburbilduz**

Aztertutako foru dekretu-araua modu eraginkorrean bete da, inolako arazorik gabe haren aplikazioan, inolako eragozpenik gabe bereziki, eta orain arte ez da judizializatorik egin haren aplikazioan. Ondorioak onak izan dira eta ezarritako helburuak lortu dira.

## **Necesidades de desarrollo normativo**

El decreto foral-norma analizado no ha tenido necesidad de ningún tipo de desarrollo normativo.

## **En resumen**

El decreto foral-norma analizado se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, sin ningún tipo de problemas en su aplicación, sin ningún contratiempo en especial, y hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación. Las conclusiones han sido satisfactorias y se han alcanzado los objetivos establecidos.